Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# BEHAR BEREZIAK GAUR EGUNGO HAUR LITERATURAN

## GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA:** Lejarza, Arroita, Aitor

**ZUZENDARIA:** Etxaniz, Erle, Xabier

# AURKIBIDEA


1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .... 5
2. MARKO TEORIKOA .... 6
    - 2.1. Haur literaturaren definizioa .... 6
    - 2.2. Behar bereziak .... 8
    - 2.3. Behar bereziak haur literaturan .... 12

3. IKERKETA .... 16
    - 3.1. Helburuak eta hipotesiak .... 16
    - 3.2. Metodologia .... 17
    - 3.3. Emaitzak .... 18

4. ONDORIOAK .... 26
    - 4.1. Ikerketaren ondorioak .... 26
    - 4.2. Ondorio orokorrak .... 27

5. ETORKIZUNARI BEGIRA .... 29

6. BIBLIOGRAFIA .... 30

7. ERANSKINAK .... 34

Ondorengo ikerketa lana, haur literaturan oinarritzen da, zehazki behar bereziak haur literaturan duten presentzia eta lanketa aztertuko da.

Ikerketa lan honetan, gure eskoletan, LHko 2. mailan hain zuzen erabiltzen diren ipuinen analisia proposatzen da eta behar berezi espezifikoak dituzten ipuinen analisia egingo da.

Proposatutako gaia garrantzitsua da gure errealitate hurbilean gero eta behar berezidun pertsona gehiago daude eta, pertsona horiekiko enpatia garatzeko, beraien egoera ulertzeko, laguntzeko eta harremantzeko estrategiak eskuratzea ezinbestekoa da. Hori lortzeko, irakaslearen esku dago txikitatik eskolan horren lanketa egitea. Horretarako baliabide erakargarria eta motibagarria ipuina da.

Ikerketa lan honen bitartez antzeman izan da gure eskoletan behar bereziko liburuen presentzia txikia dela eta euskaraz gai hori tratatzen duten oso lan gutxi daudela eta, batez ere, gaztelaniazko liburuetan lantzen dela.

El siguiente trabajo de investigación se centra en la literatura infantil, concretamente en la presencia y tratamiento de las necesidades educativas especiales en la literatura infantil.

En este trabajo de investigación, se propone el análisis de los cuentos más utilizados en los colegios de mi entorno, concretamente, en 2º curso de primaria y se hace un análisis de los cuentos específicos que tratan sobre las necesidades especiales.

El tema propuesto es importante en nuestra realidad cercana, donde cada vez hay más personas con necesidades especiales. Para desarrollar la empatía hacia estas personas, es necesario adquirir estrategias para entender su situación, ayudarles y relacionarse. Para lograrlo, está en manos del profesorado que desde la etapa de infantil se trabaje en la escuela. Para ello, el cuento es un recurso atractivo y motivador.

A través de este trabajo de investigación se ha detectado la escasa presencia en nuestras escuelas cercanas de libros que tratan las necesidades educativas especiales y la mayoría de los trabajos encontrados están escritos en castellano.

The next research is based on child literature, specifically on the presence and treatment of special needs in child literature.

In this research work is proposed an analysis of the most commonly used stories at schools around me, specifically, in 2nd grade in Primary and an analysis of stories with specific needs will be carried out.

The proposed issue is important because there are more and more people in our immediate reality with special needs, and it is essential to develop empathy for these people, to understand their situation, to help them and to bring them together. In order to accomplish this, it is up to the teacher to work on it at school from childhood. An attractive and motivating resource is a tale.

It has been noted through this research that there are a few books about special needs and most of the works found in our schools are written in Spanish.

# 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkeztutako Gradu Amaierako Lan honek, unibertsitatean egindako practicum guztietan antzemandako behar berezidun ikasle kopuru altuan du abiapuntua. Kasu askotan behar berezidun haurrak baztertu egin dira eta egoera hori kudeatzeko beharra antzeman dut.

Ikasleei egoera hori ezagutzeko, ulertzeko eta kudeatzeko baliabideak eman behar zaizkie eta horretarako irakurgaiak oso aproposak dira. Istorioen bidez modu ludikoan egoera ezberdinak ezagutzeko aukera daukate eta pertsonaia bakoitzaren lekuan jar daitezke. Modu horretara, besteekiko enpatia garatu daiteke eta gure eskola inklusiboaren aldetik, pertsonen integrazioa ahalbidetzen da. Horrez gain, gai honen inguruan, ikasi, sakondu, nahi izan dudalako arlo horretan; interes pertsonala izan dudalako eta irakasle formazioan honen beharra ikusi dudalako.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, ikerketa lana hiru atal nagusitan banatuta dago: marko teorikoa, ikerketa proposamena eta azkenik, ondorioak.

Lehenengo atalean, haur literaturaren definizioa azaltzen da eta horrekin batera behar berezien kontzeptua ere definituko da. Definizio horiek emateko, autore ezberdinen ideiak azalduko dira.  Bi kontzeptu horiek ulertzea ezinbestekoa izango da ikerketa lana ulertzeko. Behar bereziek haur literaturan duten presentzian eta lanketa oinarrituta dagoenez, behar bereziak haur literaturaren bidez lantzeko arrazoiak ematen dituzten autore ezberdinen ideiak azalduko dira.

Bigarren atala, ikerketa lana, helburuetatik eta hipotesietatik abiatuko da. Ondoren, metodologia estrategiak azalduko dira. Jarraian, egindako analisitik jasotako datuen emaitzak grafikoen laguntzaz argitaratuko dira. Emaitza horiek, aurretik aipatutako helburu eta hipotesiekin alderatuko dira.

Lanari amaiera emateko, egindako lanetik ondorioak aterako dira eta nire ondorio pertsonalak ere aipatuko ditut, non aztertutako egoeraren, jasotako datuen eta hobekuntza proposamenen  hausnarketa egingo den.

# 2. MARKO TEORIKOA

## 2.1 HAUR LITERATURAREN DEFINIZIOA

Lan honetan egingo den ikerketa errazago ulertzeko, lehenengo Euskaltzaindiak haur literaturari buruz jasotzen duen definizioa kontuan izango da. ( X. Etxaniz, 1997, in Euskaltzaindia, D.G) "Haur eta gazte literatura, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, haiei atsegina sentiarazten dien testu multzoa da. Testu multzo horrek, gainera, hizkera berezia izan beharko luke". Ondorengo lerroetan, azalduko den bezala, definizio hori osatzeko eta haur literaturaren inguruan daukagun ideia argitzeko hainbat autoreren definizioa kontuan hartuko dira.

Haur literatura garrantzi handiko literatura da, adin txikikoei emozioak, esperientziak bizitzeko eta azaleratzeko aukera emateaz gain, hizkuntza ikasteko ere baliagarria delako. (Igerabide, 2000).

Egin dudan ikerketa honetan antzeman daitekeen bezala, denboraren poderioz eta ikerketen poderioz haur literaturan aldaketak eman dira. Aldaketa horiek hurrengo lerroetan aipatuko ditut.

Esan daiteke literaturaren didaktika hausnarketa-arlo gisa azken hamarkadetan eratu dela, batez ere 60ko hamarkadaren amaieratik. Urte horietan agerian geratzen hasi zen XIX. mendeko literatura-irakaskuntzaren eredua ez zela egokia gizarte berriarentzat (Colomer, 1996). Izan ere, gizartea erabat alfabetizatua eta eskolarizatua dago. Horrek, hizkuntzaren jakinmina areagotu du eta literaturaren irakaskuntzan eta literatura baliabideetan aldaketak egitea beharrezkoa ikusi da.

Aldi berean, Xabier Etxanizek (1992), literaturan aldaketak eman direla aipatu du. Izan ere, 90eko hamarkadan, arrazoi ezberdinengatik, Haur Literatura berpizten joan da; Euskal Herrian ere, Haur Literaturak eman duen gorakada nabaritu egin da. Autore honek gorakadaren bi arrazoi nagusi nabarmendu ditu: pedagogia aurrerakoia eta haurtzaroari eman zaion tratamendu berria. Ikuspegi berri horretan, "haurra ez da gizon-emakumetxo bat, beren nortasuna eta ezaugarriak dituen pertsona baizik" (Etxaniz, 1992,11.orr).

Etxanizek (1992), Haur Literaturak gorakada ematearen arrazoietako bati erreferentzia egiten dio, pedagogia aurrerakoiari, Piaget, Neill eta Durkheim bezalako ikertzaileen ondorioz. Autore honek, pedagogia aurrerakoia irakaskuntza berri bat dela defendatzen du. Pedagogia mota honetan, irakas liburu atseginak bultzatzen dira eta ikaslearen interesetatik abiatzea proposatzen da.

Aurrekoa kontuan izanik, eta Etxanizek (1992) aipatzen duen bezala, gaur egungo egoerara ailegatzeko, haur literaturan, pedagogian eta haurtzaroan progresio bat eman da.

Haur Literatura zer den definitzeko, autore ezberdinen ideiak kontuan izan dira. Autore horietako bat Etxaniz (1992) da eta berak, Haur Literatura honela definitzen du: “haurrek egindako edo haurrei zuzendutakoa kontsideratu beharrean, haurrek irakur eta uler dezaketena sartuko dugu haur literaturan” (Etxaniz, 1992, 13.orr).

Pullidok eta Ruizek (2018) Haur Literaturaren hainbat definizio eta ideia proposatzen dituzte haiek idatzitako artikuluan. Artikulu horretan, hainbat autoreen ideiak jaso dituzte eta (Freirek, 1990, in, Pullido eta Ruiz, 2018) Haur Literatura honela definitzen du: “ Edertasuna hitzaren bidez adierazten duen arte ederretako bat”. Lopezek (2015), Haur Literatura giza garapenaren etapa bati egokitzen zaiona dela dio, gaien unibertsaltasunari uko egin gabe. (Sorianok, 1995, in, Pullido eta Ruiz, 2018), ordea, “komunikazio literario eta historikoa, hau da, denboran eta espazioan kokatua esatari edo idazle heldu baten, igorlearen eta hartzaile haur baten artean, zeinak, definizioz, errealitatearen esperientzia eta egitura linguistiko, intelektual, afektibo eta abarren zati bat baino ez duen, helduaroa ezaugarritzen duena”.

Aurretiaz aipatutako autoreek bezala, literaturan adituak diren hainbat autorek, Colomber (1996), Garcia Padrino (1992), Cerrillo (1992) eta beste askok, Haur Literatura goraipatu dute, literaturaren barnean. Aditu hauen usteetan, Haur Literaturako testuek ezaugarri bereziak dituzte beste testu mota batzuekin alderatuta. Haur Literaturaren testuetan, irudiak edo ilustrazioak agertzen dira eta hizkuntza eta egitura bereziak erabiltzen dira. Aldi berean, Haur Literatura kontsumitu edo erabiltzen duten irakurleak, besteen aldean, desberdinak dira (Soto, Cremades & Garcia, 2017).

Haur Literaturaren ezaugarriekin jarraituz, ( Arnal, 2015, in, Diez, 2015) idazle eta irakasle denaren hitzetan, magia, fantasia eta abentura literatura mota honen ezaugarriak direla gehitzen du. Gaur egun ordea, Haur Literaturan haurren egunerokotasuneko gaiak lantzen dira, mezu didaktiko ezkutuak gehituz irakurgaietan. Gainera, Haur Literaturan, haurren egunerokotasuneko gaiak lantzeaz gain, haurren interesetako hitz artistiko edo ludiko oinarri duten adierazpenak eta jarduerak lantzen dira (Cervera, 1984).

Hainbat dira Haur Literatura osatzen duten testu motak, hala nola, poesia, antzerkia, narrazioa, errimak, asmakizunak, aho-korapiloak, jolas kantak, etab. Horrez gain, hitzak irudiarekin bat egiten duten ekoizpenak ere; adibidez, komikia, zinema eta bideoa.

## 2.2. BEHAR BEREZIAK

Ikerketa hau, irakaskuntza eremuan kokatuta dagoela kontuan izanik, (Hezkuntza Curriculumak, 2015) aipatzen duena kontuan izango dut. Bertan zehazten da haur guztiek garapen integralerako aukera berdinak izan behar dituztela, ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz. Hori oinarritzat hartuz, ikasleek dituzten behar bereziak definituko ditut. Hezkuntza premia bereziak aldi batekoak (adopzioa, etorkinak, etab) edo behin betikoak (entzumen, defizit intelektuala, gaitasun handiak, etab) izan daitezke.

Irakasle lana prestatzerakoan, ikasle guztiek garapen integralerako eta ikasteko aukera berdinak izan behar dituztela kontuan izanik, irakasleak metodologian moldaketak egin behar ditu haur bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko.

Behar berezien terminologia, eta horren barnean desgaitasunen kontzeptua aldatuz joan da denboran zehar. Terminologia aldaketa hori ondorengo lerroetan azalduko dut.

(Munduko Osasun Erakundeak, 2001, in, Gil, 2020) desgaitasuna definitu zuen. Elkarte honen hitzetan, desgaitasuna gizakiaren baldintza bat da, eta, oro har, pertsona baten gabeziak, jarduera-mugak eta partaidetza-murrizketak hartzen ditu bere baitan:

**Urritasunak** gorputz-egitura edo -funtzio bati eragiten dioten arazoak dira. Jardueraren mugak ekintzak edo zereginak gauzatzeko zailtasunak dira.

**Parte-hartzearen murrizketak** bizitzako egoeretan parte hartzeko eta harremanak izateko zailtasunak dira.

Horrela, desgaitasuna fenomeno konplexua da, eta ez du gizabanakoa modu isolatuan aztertzen, bizi den gizartean duen elkarreraginean baizik. Definizio horrek lehen aldiz aitortzen du **testuinguru soziala** faktore erabakigarria dela pertsona baten desgaitasunerako.

Baina, gaur egun behar bereziak definitzeko erabiltzen den terminologia, aldatuz joan da denboran zehar Gonzalezek (1998) bere lanean aipatzen duen bezala. Lehen, termino horri, hezkuntza berezia edo ezgaituak deitzen zitzaion. Aldaketa hori, bilakaera sozial eta hezitzaile baten emaitza dira.

Warnock informeak, (Warnock eta besteak 1978) aurretiko ideiak sistematizatu egin zituen eta “hezkuntza premia bereziak” kontzeptua ezagutzera eman zuen. Informe horrek gure gizarteko eskoletan aldaketak ekarri zituen. Warnock informea kontuan izanik, Ruiz-ek (1988) defendatzen du, ikasleak ez direla behar berezietan eta hezkuntza orokorrean bereiztu behar. Horregatik, David Beldak (2018), gizartean ezberdinak diren pertsonak gero eta inklusiboagoak direla defendatzen du, hau da, gizartean gero eta gehiago integratzen direla dio, nahiz eta egoera hoberantz jarraitu behar duen. Terminologia positiboa (dibertsitate funtzionala) aldarrikatu zuten ezgaituen *Foro de vida independiente*, kolektiboaren bitartez Espainian 2005ean.

Romañachek eta Lobatok (2007) beharrezkoa ikusten dute izendapen positiboaren erabilera. Aldaketa horren oinarrizko helburua, bazterketa eta gizartetik kanporatzeko egoerarekin amaitzea da. Kontzeptu berri horrek gizakiaren duintasuna errespetatzea eskatzen du. Gainera, terminologiaren aldaketarekin jarraituz, 2001ean, Osasunaren Munduko Erakundeak minusbaliatua hitza alde batera utzi eta minusbaliotasuna terminoa erabiltzea erabaki zuen.

Gainera, Solak eta Lopez-ek (1999) gehitzen dute, hezkuntza premia bereziei erreferentzia egiteak, banakakoaren aniztasunari aipamena egitea dela. Horrek esan nahi du, ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan inplikatuta dauden elementu guztiak aztertu behar direla.

Beraz, ikasle bakoitzaren aniztasuna kontuan hartu behar denez hezkuntza prozesuan lagundu ahal izateko, Warnock (1978) informean, behar bereziak lau taldetan sailkatzen dira, talde bakoitzak dituen zailtasunak aipatuz. Hurrengoak dira, Warnock-ek (1978) proposatzen dituen taldeak:

1. **Entzumen-, ikusmen- edo mugikortasun-akatsak** dituzten haurren hezkuntza-premia bereziak, arazo intelektual edo emozional larririk gabe.
2. **Hezkuntza-desabantailak** dituzten haurren hezkuntza-premia bereziak.
3. **Ikasteko zailtasunak** dituzten ikasleak.
4. **Emozio eta jarrera zailtasunak** dituzten ikasleak.

Garridok (1993) berriz, beste sailkapen ezberdin bat proposatzen du bere lanean. Autore honek, bi talde nagusitan sailkatzen ditu behar bereziak, talde horietan azpitaldeak proposatuz. Hurrengoak dira, Garridok (1993) proposatzen dituen taldeak:

1. **Zailtasun psikikoak**
    1. Ikasteko zailtasunak (arreta, hizkuntza, dislexia, dislalia, etab.)
    2. Intelektuala. Adimen urritasuna.
    3. Emozionala, afektiboa eta soziala (autismoa, jokabide-nahasmendua).

2. **Zailtasun fisikoak**
    1. Zentzumenak (ikusmena, entzumena, etab.).
    2. Mugimenduzkoak.
    3. Gaixotasun kronikoak (epilepsia, diabetes, etab.).

Behar berezien terminologiekin jarraituz, berrienak honako hauek dira: lan-arloan oraindik indarrean dauden ezintasun/baliaezintasunarena; minusbaliotasunarena (kontzeptu nagusia, 1982an onartu zenean); desgaitasunarena, 1980ko eta 2001eko sailkapen-sistemetan Osasunaren Mundu Erakundeak barneratzen duena, baina zentzu desberdinekin; eta, azkenik, dibertsitate funtzionalarena (Colectivo Loé, 2013;35).

Estatistika, Geografia eta Informatika Institutu Nazionalak (INEGI), 2000. urtean dibertsitate funtzionalaren sailkapena argitaratu zuen:

- **1. Taldea: Minusbaliotasun sentsorialak eta komunikaziokoak.**
  - Ikusmen, entzumen eta hizkera urritasuna.
- **2. Taldea: Mugimendu urritasuna.**
  - Ibiltzeko, manipulatzeko eta mugimenduen koordinazioan zailtasunak.
- **3. Taldea: Adimen urritasuna.**
  - Ikasteko, egunerokotasunean murgiltzeko eta pertsonekiko harremanetan zailtasunak.
- **4. Taldea: Minusbaliotasun anitzak eta bestelakoak.**
  - Urritasun desberdinen konbinazioa eta aurretik aipatu gabeko beste urritasun mota batzuk.

Desgaitasunaren sailkapenarekin jarraituz, (Munduko Osasun Erakundeak, 2001, in, Gil, 2020) elbarritasun mota asko daudela aipatu zuen, baina, bost talde nagusitan sailkatu zituen:

- **1. Fisikoa**
  - Sistema neuromuskularreko eta/edo eskeletikoko alterazioak biltzen ditu, mugimendua oztopatzen edo mugatzen dutenak.
- **2. Psikikoa**
  - Egokitze-jokabidearekin, adimen-ahalmenekin eta egitura neurologikoekin lotutako funtzioen alterazioei buruzkoa.
- **3. Sentsoriala**
  - Egitura sentsorialen asaldurekin lotua: entzumena, ikusmena, ukimena, dastamena eta usaimena edo nerbio-sistema.

- **4. Intelektuala**
  - Funtzio intelektualaren alterazioei buruzkoa, batez bestekoaren eta egokitzeko jokabidearen azpitik nabarmen.
- **5. Organikoa**
  - Funtzio organikoetan (lokomozio-aparatua (muskulua eta hezurra), arnas-aparatua, digestio-aparatua, iraitz-aparatua, zirkulazio-aparatua, endokrinoa, nerbio-aparatua eta ugaltze-aparatua) edo sistema organikoaren egituretan izandako alterazio kronikoekin lotuta dago.

## 2.3. BEHAR BEREZIAK HAUR LITERATURAN

Aurretik aipatu dudan bezala, haur literatura eta behar bereziak kontzeptuak oso garrantzitsuak dira irakaslearen lanean eta ikaslearen ikaskuntza prozesuan. Hori dela eta, bi kontzeptu horiek lotu egingo ditut ondorengo lerroetan.

Casanovak (2009) baieztatzen duen bezala, eskolak inklusiboak badira, kalitatezko irakaskuntza bermatzen da ikasleak aniztasuna dagoen gizarte batean integratzeko prestatzen direlako.

Txikitatik literaturarekiko harremana sortzen da, izan ere, nagusiek haurrei ipuinak kontatzen dizkietelako. Autore ezberdinak haien lanetan azaltzen duten bezala, ipuinek pertsonaia desberdinak ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen dute ikuspuntu ezberdinak bultzatuz (Monjas eta Gonzalez, 1997; Blaska, 2003). Sandoval eta Carpena-ren (2013) arabera, ipuinen magiaren eta balore moralaren bidez, sentsibilitatea gozotasunez lantzea baimentzen dute Ipuinek ematen duten aukerarekin, gizarte honetan bizi diren pertsonen egoera ezberdinak ezagutu ahal dira besteenganako enpatia sortuz. German Sánchez Ruiperez Fundazioak (2007) desgaitasuna duten pertsonaiak agertzen diren istorioak eta abenturak kontatzeko joera izan behar dela defendatzen du, karakterizazioetan sentimentalismoa eta karitatea saihestuz.

Wopperer-ek (2011) Hezkuntza Premia Bereziak Haur Literaturan agertzearen garrantzia defendatzeko hainbat arrazoi ematen ditu. Lehenik, zailtasunak dituzten

pertsonei buruzko informazioa jaso daiteke istorioen bidez eta horrela, pertsona horiekin harremantzeko aukera eskaintzen dute. Ideia horri Blaska-k (2003) gehitzen dio ipuinen bidez jasotako ezagutza horien bitartez, haurrek ezberdintasunei dagokienez errespetuzko sentimenduak garatu ahal izango dituzte. Horrez gain, autore honek, literaturak zailtasunak dituzten haur eta helduei beraien buruarekiko ikuspuntua positiboki garatzen laguntzen die.

Honek lotura izan dezake Davis eta Wilson-ek (1992) asmatutako biblioterapia kontzeptuarekin. Autore hauek hurrengo hitzak erabiliz definitzen dute biblioterapia: "Biblioterapia literaturaren bidez osasun emozional ona lortzeko prozesua da".

Literatura Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrekin erabiltzearen onurekin jarraituz, Hernández eta Rabadán-ek (2014) biblioterapiaren erabilera haur ospitalizatuekin erabiltzea defendatzen dute. Izan ere, haurrek haien gaixotasunak hobeto ezagutzeko, jasateko eta ongizate emozionala lortzeko aukera ematen dutelako.. Ildo honetatik, Villanueva haur psikiatrak Fortuna argitaletxearen bidez Terapipuinak izeneko ipuin bilduma bat argitaratu du.

Ikasgelan aniztasunari arreta ipuinaren bidez eskaini ahal zaio. Fonseca eta Sanchez-k (2014) diote, ipuinaren bidez haurrak pertsonaiekin identifikatu daitezkeela eta sormena estimulatu dezaketela. Reinak (2012) dio ipuinak helburu moral edo ludiko bat daukala eta irudimena estimulatu eta jakingura pizten duela. Gainera, ikasgeletan erabiltzeaz gain, Blaska-k (2003) biblioterapia etxean zein eskolan erabiltzea ona dela dio ipuinen aukeraketa egokia eginda, ezberdintasunei buruzko jarrera positiboak ekar ditzakeelako

Beraz, Hezkuntza Premia Bereziko haurrekin literatura lantzeko edo erabiltzeko, ipuinen aukeraketak garrantzia handia du. Pulido eta Ruiz-en (2018) aburuz aniztasunari arreta eskaintzeko ipuinak aukeratzeko hurrengo irizpideak eskaintzen dituzte haien lanean:

- Hizkuntza sinplea eta argia.
- Adinari egokitutako hiztegia eta luzera.
- Zentzumenen bidezko esperientziak eskaintzen dituzten testuak eta parte hartzera animatzen dutenak.

- Istorio interesgarriak, hizkuntza naturala erabiltzen dutenak.
- Ilustrazio originalak. Estereotipoak kanpo uzten dituenak.
- Hitzik gabeko irudiak erakustea haurrek euren istorioak asma ditzaten.

Haur literatura eta behar bereziekin lotutako hainbat ikerketa egin dira. Horien artean daude, alde batetik, Beldarena (2018) eta bestetik, unibertsitateko ikasle baten Gradu amaierako lana, Lopez (2019). Horiez gain, Rodriguez (2017), Pardo (2017) eta Aguado-ren (D.G.) ikerketetan ateratako ondorioak aztertuko ditut bukaeran nire ikerketako ondorioekin konparatu ahal izateko.

Beldak (2018) haur literatura eta behar bereziei buruzko ikerketa egiteko, AFANIP elkarteko 33 familien galdetegia aztertu zuen. Elkarte hori, gorputz adarren anputazioak dituzten familiez osatuta dago. Ikerketa horretako ondorioak aztertu ditut eta esan daiteke familia gehienek ez dituztela behar bereziak agertzen diren liburuak irakurtzen, bai ezezagutzagatik, bai horretaz ez jabetzeagatik. Ezgaitasunak agertzen diren liburuak erabili dituztenek egoera normaltzeko helburuarekin egin dute, eta beraien seme-alabek egoera horiek ezagutzeko.

Galdetegi horretan, familia batzuek behar berezien gaiaren trataera kritikatu egin dute errealitatetik aldendu egiten delako eta komentario desegokiak ager daitezkeelako. Beste batzuk, ordea, ez dira gaiaren tratamenduan fijatu edo positibotzat jo dute.

Familia ia guztiek uste dute positiboa dela eskolan integraziorako baliabide bezala behar bereziak lantzen dituzten liburuak lantzea. Hau nire ikerketako helburuetariko batekin bat dator. Izan ere, behar berezidun haurrek, beraiek bezalakoak diren beste haur batzuk ezagutzeko aukera daukate eta gelakoek enpatia gara dezakete beraien gelakideekin harremantzeko moduak eskuratuz eta egoera normalizatzeko.

Lopez-ek (2019) gai honen inguruko ikerketa lana egiteko, behar bereziak agertzen diren 25 liburu aztertu ditu eta zoriz hartutako beste 25 liburu. Liburuak aztertzeko, irizpide batzuk hartu ditu kontuan. Ikerketa horretan ateratako ondorioak baliagarriak izan daitezke nire lanerako. Hasteko, istorio gehienak modu errealean kontatuta daudela eta pertsonaia gehienak modua positiboan agertzen direla. Istorio gehienak senide edo protagonistak kontatzen duela. Aztertutako liburuetatik, erdiak

baino gehienak, elbarritasun sentsorialak eta komunikazioarenak zein mentalak tratatzen dira. Ikerketa honetan ateratako azken ondorioa, zoriz aukeratutako liburuetan ez direla behar bereziak agertzen. Beraz, horrek esan nahi du, behar bereziak agertzen diren liburuak gutxiago direla.

Rodriguez-ek (2017) familiek aniztasun funtzionala lantzen duten haur literaturari buruz daukaten iritzia jakin nahi izan du egindako ikerketaren bidez. Galdeketa horretatik ondorioztatu du, familien ustez, literatura osoak ez du gaiak modu egokian, positiboan eta errealistan lantzen. Ikuspegi ez egoki horrek, ondorio ezkorrak ekar ditzake pertsonengan.

Hori ekiditeko, familiek proposatzen dute ikasgelan gai hau lantzen duten liburuak irakurri aurretik, irakasleak, kontsultoreak eta dagokion familiak aztertzea.

Pardo-k (2017) behar bereziak haur literaturan duten lanketari buruzko ikerketa egiteko, haur literaturako hainbat liburu aztertu ditu. Azterketa horretatik ondorioztatu du, hainbat liburu behar berezien ezagupenerako egokiak direla, elbarritasunari ez zaiolako garrantzia berezirik eskaintzen pertsonaia guztiak modu berean tratatuz. Gainera, modu errealean lantzen da gaia eta enpatia lantzeko aukera ematen dute. Aztertutako beste liburu batzuek, ordea, fantasia erabiltzen dute gaia lantzeko errealitatea gutxietsiz. Gainera, elbarritua baztertzeko joera nabari da. Horrek, eragin negatiboa izan dezake irakurlearengan elbarritasunaren inguruko irudi ez egokia sortuz.

Aguado-k (D.G.) ere, behar berezien trataera haur literaturan nolakoa den aztertu du. Mota horretako liburuak aztertuz, antzeman du berak egindako azterketan liburu gehienak ezgaitasun mentalen ingurukoak direla. Aztertutako liburu erdiak baino gehiago, protagonistak animo baxukoak direla, mendeko moduan agertzen direla eta jarrera ezkor batekin agertzen direla. Liburuek ezgaitasunaren inguruko trataera ezberdinak egiten dituzten arren, guztiek hausnarketara gonbidatzen dute, baina elbarritasunaren ideia ez egokia sortzera bideratzen dute irakurgai batzuek.

# 3. IKERKETA

## 3.1 HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerketa lan hau egiteko, lehenik eta behin, niretzat irakasle moduan eta gizartearentzat interesgarria eta lagungarria den gaia aukeratu dut: behar bereziak eta haur literatura. Aztertu beharrekoa zehazteko, ikerketa honen helburu nagusiak finkatu ditut. Horrekin batera, nire ezagutzarekin loturiko hipotesiak egin ditut.

Azterketa honetatik ateratako emaitzak analizatuko ditut eta aurretik egindako hipotesiekin alderatuko ditut ondorioak ateraz.

Lan honen helburu nagusienetariko bat da, haur literaturaren ezagutza handitzea, gehiago ezagutzea, zer dagoen eta nolakoa den gure haur literatura eta, bereziki, haur literatura eta behar berezien arteko harremana aztertzea. Izan ere, gure eskoletan gero eta behar berezi gehiago daude eta lan honen bitartez, horren inguruko lanketa irakurketa liburuekin egiten den ala ez jakin nahi dut; haur literaturako irakurgaiak, oso erakargarriak dira ikasleentzat eta enpatia eragin dezakete.

Ikerketa lan honen asmoa da, haurrentzako irakurgaien artean behar bereziak agertzen badira, horiek nola azaltzen diren aztertzea da.

Lan honekin lortu nahi dena da, behar bereziak modu egokian lantzen dituzten liburuak jasotzea, eta haur literaturaren bidez, behar bereziko haurrengana hurbiltzea eta baita behar bereziak dituztenen egunerokotasuna haurrei erakustea eta pertsona horien integrazioan laguntzea.

Aipatutako helburuak kontuan izanda, eta ikerketa lanerako jarraibide bezala, ondorengo **hipotesiak** formulatu ditut:

- Haur literaturan behar bereziak dituzten pertsonak ez dira agertzen edo oso gutxi agertzen dira.
- Liburuaren gaia behar bereziak direnean soilik aipatzen dira pertsona hauek.
- Behar bereziak agertzen badira, fisikoak dira eta ez psikologikoak.
- Behar bereziak ez dira zerbait negatibo moduan adierazten, eta emozio positiboak sortarazten dituzte irakurlearengan.
- Behar bereziak dituzten pertsonak dependenteak dira.

## 3.2 METODOLOGIA

Haur literatura eta behar bereziei buruzko ikerketa honen helburu nagusia eskoletan gai honi buruzko trataera nola egiten den aztertzea da. Aurrera eramango den ikerketa, estudio kuantitatibo bat izango da. Horretarako, liburu kopuru zehatz bat hartu dut azterketa egiteko eta behaketa horretatik zenbakizko ondorioak lortuko ditut. Eskoletan hain erabiliak diren liburuak aztertu egingo dira xede hori ondorioztatzeko. Horretarako, eskola batera gerturatu nintzen eta bigarren mailan gehien erabiltzen dituzten liburuak zeintzuk diren galdetu nuen. Irizpide horretan oinarritutako 40 liburu behatuko ditut (**eranskina 1**). 40 liburu horiek aztertzerako orduan, behaketa fitxa bat erabili dut (**eranskina 2**). Behaketa fitxa hori egiteko, Lopez (2019) GRAL-ean oinarritu naiz nire behaketa fitxa egiteko. Fitxa horretan, liburuari buruzko informazio teknikoa ageri da eta behar berezikoak diren ala ez. 40 liburu horiez gain, 10 liburu espezifiko behar berezietan oinarrituta daudenak aztertu ditut. 10 liburu horien izenburuekin zerrenda bat osatu dut **(eranskina 3).** Liburu espezifiko horiek aztertzeko behaketa fitxa bat erabili dut. Behaketa fitxa hori egiteko, nire lanean jarritako helburu eta hipotesietan oinarritu naiz **(eranskina 4).** Behaketa egiterako orduan, egoeraren trataeran fijatu naiz batik bat, eta horrekin lotuta doazen hizkuntza eta irudiak.

Estudioa egiteko, ikastetxe bat aukeratzerako orduan, nire ezagupenean oinarrituta, behar berezi ugari dituen eskola bat hautatu nuen. Izan ere, ikastetxe hori, Gasteizko gorren erreferentziazko ikastetxea da eta ikasleen ehuneko altua etorkinak dira eta maila sozial baxukoak, % 97a bekaduna da. Gainera, ikastetxe horretan liburutegiko irakasle arduraduna dago, liburutegiaz eta liburuez soilik arduratzen dena. Hori kontuan izanda, bertan behar bereziko liburu asko aurkituko nituela uste nuen. Horrela izan zen, lana egiteko 40 liburuak eta 10 liburu espezifiko lortu nituen, baina liburu espezifiko ia denak gaztelaniaz ziren. Horregatik, euskarazko liburu espezifikoak lortu nahian nire herriko eta inguruko eskola euskaldunetara joan nintzen. Eskola horietan, ordea, ez dut behar bereziko libururik aurkitu. Ikerketa hau euskaraz idatzita dagoenez eta hizkuntza horretan idatzitako liburu espezifikoak aztertu nahi ditudanez, nire herriko liburutegira eta unibertsitateko liburutegietan bilatu ditut. Nire bilaketa prozesuan euskarazko lan gutxi aurkitu ditudanez, gaztelaniaz idatzita dauden bi irakurgai aztertu ditut.

Liburuen fitxak bete eta bertako informazioa banan-banan behatu ondoren, zenbakizko emaitzak lortu nituen. Emaitzak argiago ikusteko, grafikoak erabili ditut.

Ikerketa honetatik, jasotako informazioarekin ondorioak aterako ditut, eta ondorio horiek antzerakoak diren beste ikerketa batzuetatik ateratako datuekin konparatu egingo ditut eta egoeraren hausnarketa egingo dut.

## 3.3. EMAITZAK

Ikerketa lan hau egiteko, Lehen Hezkuntzako 2. mailan erabiltzen diren 50 liburu aztertu ditut aurretik aipatutako galdetegiaren bitartez. Galdetegia nire lanerako helburuekin eta hipotesiekin bat dator, eta ondorengo lerroetan galdetegi horietan jasotako emaitzak grafikoen azalduko ditut.

Ondorengo grafikoan (grafiko 1)  ikus daitekeen bezala, aztertutako liburu gehienetan ez dira behar bereziak lantzen. Izan ere, 2. mailan gehien erabiltzen direnen artean ez dago behar berezidun bat ere ez. %20a aztertutako behar berezidun liburu espezifikoei dagokie.




*Grafikoa 1*

Bigarren grafikoan ikus daitekeen bezala, behar bereziak lantzen diren liburuetan aurkitutako behar gehienak **psikologikoak** dira, hala nola, Down sindromea *Honelakoxea da nire arreba, eta zer?*, *Nire anaiak eta ni*, *Berezia naiz lagunentzat*, eta *Zer izango naiz handia naizenean* autismoan *Tono* eta *Mi amigo tiene autismo*, eta azkenik *Martin (irudia 1)* album ilustratua dago, non elbarritasun mentala daukan ume baten jarrera azaltzen den. Portzentaia txikiago batean, **behar fisikoak** aurkitu ditut, erremerre hitz egiten duen ume baten ipuina *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?*, desberdintasun fisikoak, non ume batek belarri handiak dituen liburua *Tximeleta belarriak (irudia 2)* eta azkenik ikusmen urritasunarekin lotutako liburua *Arroza eta Tinta*. Aurkitutako liburuetan, gizartean gehien ezagutzen diren beharrak landu dira eta kopuruari dagokionez, beharraren arabera liburu gehiago daude.




*Grafikoa 2*




*Irudia 1. Martin. Psikologikoa.*




*Irudia 2. Tximeleta-belarriak. Fisikoa.*

Hurrengo grafikoan (grafikoa 3) adierazten da, zerrendatutako liburu gehienek, emozio positiboak adierazten dituztela. *Honelakoxea da nire arreba eta zer,?* Liburuak, hasieratik ikuspegi positiboa adierazten du "Besteak bezalakoa izan arren, desberdina da (…)", "Nire arreba ni baino atzeratuagoa izango da, baina, ni ere beste batzuk baino atzeratuagoa naiz". *Berezia naiz lagunentzat* liburuan ere hasieratik Down sindromearekiko ikuspegi positiboa adierazten du non, umearen lehenengo eskola eguna azaltzen duen "ez zuten baztertu. Beren ikaskidea zen eta andereñoak behar bezala tratatzeko agindu zien…". Gutxi batzuek hasieran, ikuspegi negatiboa erakutsi duten arren, bukaeran egoerari buelta eman diote eta emozio positiboarekin bukatzen da. *Tximeleta belarriak* liburuan, Maddi protagonistak, bere itxura fisikoarekin lotutako kritikak jasotzen ditu beste pertsonen partetik, baina, une oro berak, kritika horri alde positiboa ateratzen dio, adibidez, "Maddi belarri handi (…) belarri bereziak dira, buruan tximeletak bezala hegaka ibili, eta gauza itxusiak mila kolorez margotzen dituztenak" " Maddik espartzua bezain latza du ilea! Eta esaten dio bai zera! Belar moztu berria bezalakoa da nire ilea". *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?* (irudia 3) *eta Tono* (irudia 4) liburuetan.




*Grafikoa 3*




*Irudia 3. Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?*




*Irudia 4. Tono*

Aztertutako liburuetako protagonisten dependentzia mailari dagokionez, nahiko berdinduta daude dependienteak *Honelakoxea da nire arreba, eta zer?* "Kixik ongi daki nire arrebari lagundu behar zaiola behar duenean", *Nire anaiak eta ni* liburuan, Down sindromea duen ume bati buruzkoa da eta bertan, hainbat ekintzatarako umeak laguntza gehiago behar duela azaltzen da "Zergatik zaintzen duzue Paulo ni baino askoz gehiago? (…) ez dugu gehiago zaintzen (…) baina gauzak irakatsi behar zaizkio, laguntzarik gabe zailago egingo litzaioke ikastea. *Berezia naiz lagunentzat*, *Zer izango naiz handia naizenean* eta *Arroza eta Tinta* "amona itsua da, baina, bera bakarrik ibiltzen da kaletik -eskuak, belarriak eta sudurra dira orain nire begiak-" eta independenteak, *Erremerre hitz egiten dut, eta zer?*, *Tximeleta belarriak*, *Martin*, *Tono* eta *Mi amigo tiene autismo* direnak. Hala ere, pertsonaia gehienek behar bereziren bat izan arren, modu independientean bizi dira. Beste haurrek bezalako ekintza berdinak egin ahal dituzte, baina, ekintza batzuetarako laguntza gehiago behar izaten dutela erakusten du.




*Grafikoa 4.*

Ikertutako liburu guztiek 7-8 urteko haurrentzako egokia den hizkuntza erabiltzen dute. Istorioak adin horretako haurrek ulertzeko moduan azalduta daude, gainera, liburu guztiek ulermena hobetzen duten irudiak erabiltzen dute. Adin honetarako, garrantzia handiagoa ematen zaio irudiari testuari baino, irakurketa prozesuan hasten ari direlako. (Grafikoa 5).




*Grafikoa 5.*

Aztertutako liburu gehienek, benetako pertsonaiak irudikatu dituzte (Grafikoa 6) *Honelakoxea da nire arreba, eta zer?, Nire anaiak eta ni, Berezia naiz lagunentzat, Zer izango naiz handia naizenean, Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?, Martin* eta *Arroza eta Tinta* hala ere, beste irakurgai batean animaliak edo fantasiazko ilustrazioa erabili dute, *Tximeleta belarriak* liburuan, kontatzen den istorioa errealitatean ere gerta daiteke, baina, erabili den ilustrazioa fantasiazko ilustrazioa da, adibidez " protagonista ilargia besarkatzen agertzen da, ilargiak hortzak ditu" eta *Tono* liburua. Fantasia haurren adin horretarako erakargarria izan daiteke, baina, egoera modu errealean irudikatuz gero, gertuko egoera hobeto ulertu dezakete eta egoera horien aurrean, hobeto moldatzeko gaitasuna eskuratuko dute.




*Grafikoa 6.*

Ikertutako liburu espezifiko guztietan behar berezidun pertsona protagonista da. Istorioa berarengan oinarritzen da. (Grafikoa 7).




*Grafikoa 7.*

Aztertutako liburu espezifiko guztietan, behar berezi bakarra aipatzen da, baina, Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer? Liburuan, ahoskatze akatsak aipatzen dira, erremerre hitz egiten duen umea (-Ggokeren txakuggak ez daki gitagga jotzen) eta zizibaza hitz egiten zuen neskatoa (-Ni Zzuzzana naizz eta zzure adizzkidea izzan nahi dut) eta *zer izango naiz handia naizenean* liburuak, Down sindromea gaia lantzen badu ere, izeba Rosa, gorra dela adierazten du eta osaba Jon ,aldiz, totela. batez ere Liburu batzuen izenburua irakurrita, jakin daiteke zein behar




*Grafikoa 8*

berezi aipatuko duen *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?, Tximeleta belarriak eta Mi amigo tiene autismo. (Grafikoa 8).*

Agertutako hezkuntza premia batzuk, behin behinekoak dira, hau da, epe batean zehar ematen direnak *Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?, Tximeleta belarriak eta Arroza* eta *Tinta.* Aipatutako hiru liburu hauek behin behineko beharrak aipatzen dituzte, behar horiek tratamendu egokia jarraituz konponbidea daukatelako. Adibidez, *Nik erremerre hitz egiten duen umearen* kasuan, logopedaren laguntzaz hobetu dezake. *Belarri handien* kasuan, esaterako, belarriak txikitu egin daitezke ebakuntzaren bitartez edo umearen autoestimua landu daiteke dituen belarriak onartzeko. *Arroza eta Tintaren* kasuan, amamak kataratak ditu begietan eta hori ebakuntzaren bitartez konpondu daiteke. Gehiengoek ordea, behin betiko hezkuntza premiei dagokie, adibidez autismoa *Tono* eta *Mi amigo tiene autismo* eta Down sindrome elbarritasun mentalak lantzen dituzten irakurgaiak *Honelakoxea da nire arreba, eta zer?, Nire anaiak eta ni, Berezia naiz lagunentzat,* eta *Zer izango naiz handia naizenean* eta *Martin* . (Grafikoa 9).




*Grafikoa 9.*

Ondorengo lerroetan, grafikoetan jasotako datuak eta nik formulatutako hipotesiak alderatuko ditut.

- **1. HIPOTESIA: Haur literaturan behar bereziak dituzten pertsonak ez dira agertzen edo oso gutxi agertzen dira.**







Grafikoan ikus daitekeen bezala, portzentaia txikian izan arren, haur literaturan behar bereziak dituzten pertsonak agertzen dira. Gainera, behar berezidun pertsonaiak kontakizuneko protagonistak dira kasu guztietan.

- **2. HIPOTESIA: Liburuaren gaia behar bereziak direnean soilik aipatzen dira pertsona hauek.**

Aurreko bi grafikoetan nabari da behar berezidun pertsonak gaia zehazki hori denean bakarrik agertzen direla. Ez dut aurkitu irakurgai baten ere, behar berezidun pertsona bat bigarren mailako pertsonaia bezala.

- **3. HIPOTESIA: Behar bereziak agertzen badira, fisikoak dira eta ez psikologikoak.**



Ikerketa lana egin ondoren, konturatu naiz aztertutakoa nire hipotesiaren guztiz kontrakoa dela. Izan ere, %70a behar berezi psikologikoak baitira eta, portzentaia baxuagoan agertzen dira behar fisikoak %30a.

4. **HIPOTESIA: Behar bereziak ez dira zerbait negatibo moduan adierazten, eta emozio positiboak sortarazten dituzte irakurlearengan.**




Ikerketa lan hau egiten hasi nintzenean, uste nuen behar berezien ipuinen ikerketa egiterakoan ez nuela ikuspegi negatiborik aurkituko, baina, liburuak aztertu ondoren, liburu batzuek ez dutela behar berezien lanketa aproposa egiten konturatu naiz "*"Nik erremerre hitz egiten dut, eta zer?"eta "Tono"* liburuetan. Batez ere, kontakizunen hasieran, behar bereziak modu negatiboan lantzen dituzte, baina, istorioaren amaieran ikuspegia aldatu egiten dute modu positiboan landuz. Beharbada, ikuspegi hori gaur egun hainbat kasutan ematen den errealitatearekin lotuta dago eta hori aldatzeko bidean goaz.

5. **HIPOTESIA: Behar bereziak dituzten pertsonak dependenteak dira.**




Nire hipotesiaren kontra, ikertutako ipuinetan agertzen diren pertsonaia gehienak independienteak dira euren egunerokotasunean.

# 4. ONDORIOAK

## 4.1. IKERKETAREN ONDORIOAK

